# AGINTARIAK ETA LANGILERIA

## Oposaketak eta lehiaketak

### OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

### 1272

*167/2025 EBAZPENA, martxoaren 11koa, Bidasoko Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari-gerentearena, zeinaren bidez hutsik uzten baita Administrazioko eta Kudeaketako Atalburu – B (Horniduren eta Biltegien Arloa) lanpostu bat izendapen askez betetzeko deialdia Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Bidasoko Erakunde Sanitario Integratuan.*

AURREKARIAK

Bidasoko Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari-gerentearen abenduaren 20ko 900/2024 Ebazpenaren bidez, deialdi publiko bat egin zen Administrazioko eta Kudeaketako Atalburu – B (Horniduren eta Biltegien Arloa) lanpostu bat izendapen askez betetzeko Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Bidasoko Erakunde Sanitario Integratuan (2025eko urtarrilaren 10eko EHAA, 6. zk.).

Deialdi horretan emandako epearen barruan ez da hautagairik aurkeztu.

Beraz, bat etorriz Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 28. artikuluaren hirugarren arau komunarekin, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuarekin eta azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuarekin,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Hutsik uztea Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Bidasoko Erakunde Sanitario Integratuko Administrazioko eta Kudeaketako Atalburu – B (Horniduren eta Biltegien Arloa) lanpostua betetzeko deialdia. Horrek ondorioak izango ditu ebazpen hau EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Bigarrena.– Ebazpen hau Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren webgunean eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea.

Hirugarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari. Horretarako hilabeteko epea izango da, Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Hondarribia, 2025eko martxoaren 11.

Bidasoko ESIko zuzendari-gerentea,
MARIA LUISA MERINO HERNÁNDEZ.